




EGAPO

2021eko maiatza - 20. zenbakia

Goizuetako
aldizkaria



Herria bizitzeko, herria bizitoki





zenbaki honetan



• **Argitaratzailea:**
Goizuetako kultur taldea eta Goizuetako Udalaren Euskara Zerbitzua

• **Irudiak:**
Itsaso Lujanbio, Juan Jose Zubiri, Arainburu mendi taldea, Iñaki Etxeberria, Iban Eskudero, Euskara zerbitzua, Andrés Narbarte Xalto ikastetxea, Kronika, Esteban Arotzena, Fernando Goia

• **Diseinua:**
Allende Arnaiz

• **Maketazioa:**
astidiseinua.com

LG NA 742-2016



aurkibidea

- **3**..... Aurkezpena
- **4-8**..... Herria bizitzeko, herria bizitoki
- **9-11**..... Jose Ramon Minondo goizuetarraren gutunak 1790-1807
- **12-13**..... Arainburu-Umore Ona Mendi Taldea
- **14-16**..... Biraokak Goizuetako hizkeran
- **17-20**..... Goizueta iruditan
- **21-23**..... Abu Dhabi & Dubai
- **24-27**..... Goizuetari buruzko zenbait jakingarri
- **28-29**..... Liburu berriak irakurtzeko gogoz?
- **30-31**..... Goizuetarrak lehia Nafarroako I. Bertso Txapelketan
- **32**..... Arnasa gara – egunerokoan zer?
- **33**..... Atzera begira: 2001. urtea
- **34-35**..... Ezetz asmatu
- **36**..... Zure txanda





Xaporen 20. zenbakia



XAPOren lehendabiziko zenbakia 2002ko martxoaren 1eko datarekin argitaratu zen. Aldizkariko kredituetan jartzen zuenez argitaratzaileak “Goizuetako gazteak eta Goizuetako Udalaren euskara zerbitzua” ziren. 20. zenbakia argitaratu da aurten. Orduan gazteak ziren haiek akaso, agian, beharbada, gaur egun ez dira hain gazteak izanen, 20 urte ez baitira alperrik pasatzen, baina ziur oraindik ere sasoiko daudela eta aldizkariaren 20. zenbaki hau pozik hartuko dutela.

XAPO aldizkaria, beraz, hutsik egin gabe, azkeneko 20 urteotan iritsi da Goizuetako etxeetara. Garai bateko kontuak ekarri dizkigu askotan, baita gaur-gaurkoak ere. Zenbaki guz-

tietan jarri gara atzera begira, izen hori bera duen atalarekin edo garai bateko kontuak azaltzen dituzten erreportajeekin. Eta zenbaki guztietan jarri gara oraingoari begira, Goizuetan eta goizuetarrak zertan dabilzan erakusten duten idatziekin eta artikuluekin.

Oraingoan ere, 20. zenbaki honetan, halaxe egin dugu. Atzera begiratu dugu aspaldiko bertso batzuk ekarrita, duela 20 urteko Ttipi-Ttapari begirata, argazki zahar batzuk berreskuratuta, eta Jose Ramon Minondo goizuetarraren euskarazko idatzi zaharren aipamena eginda

Eta gaurkoari ere begiratu diogu, helduleku ezberdinetatik: herrira bizitzera etorri diren bizilagun berriak; eskolako ikasleek Goizuetako festei,

euskalkiari, mendiei edo biztanleriari buruz idatzitakoak; Goizuetako hizkera adierazkorra; Iñaki Etxeberriaren argazkiak; mendi taldea; irakurle taldea; euskararen arnagune izaera; goizuetarrei egindako galdetegia; edo Iban Eskudero goizuetarraren Dubai eta Abu Dabiko ibilerak.

28 orrialdekoa izan ohi da XAPO aldizkaria. 2020an 32koa egin behar izan genuen, lan guztiak jasotzeko, eta oraingoan, 2021. urtean, 36 orrialdekoa. Goizuetan zer kontatua badelako izanen da, noski, herriak bizitasunari eusten diolako alegia. Horrela izan dadila aurrerantzean ere. Eta orain, irakurle, segi orrialdeetan aurrera egiten eta hemen eskaintzen zaizunarekin gozatzen.






Herria bizitzeko, herria bizitoki

Goizuetarrok aspalditik daukagun kezka da biztanlegoaren jaitsiera eta Goizuetaren etorkizuna. Horren adibide dira aldizkari honetan bertan argitaratutako ondorengo artikuluak: “Goizueta gaixoa, nora zoaz?” 1. zenbakian (2002), “Goizueta Bizirik! Plataforma” (2003), “Herri baten heriotzaren kronika” (2004), “Goizuetan bizitzeko arrazoiaren dekalogo” (2007)... Zoritxarrez, ordea, gai honen inguruan ia beti negatiboki hitz egin izan dugu. Azken datuek ere halaxe erakusten dute gainera:

“Azken urteetan beherakada nabarmenena izan duten udalerriak, Ezkurr (15,34%), Oiz (15,23%), Beintza-Labaien (12,85%) eta Goizueta (11,44%) dira”.

*Ttipi-Ttapa (2021-02-04) *Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua eta Gaindegia.*

BIZTANLERIAREN BILAKERA				
2005	2010	2015	2019	2020
814	778	736	704	689



Baina gaur, baikor gaude, joerak aldatzen hasi direla erakusten duen datu bat baitugu eskuartean.

Begiratu zure ingurura. Begiratu adin tarte ezberdinetako kuadriletara. Zenbat gazte eta ez hain gazteren ize-nak bururatzen zaizkizu herritik kanpora bizitzera joan direnak? Baina eta zenbatenak otzen zaizkizu bikotea kanpotik etorri eta herrian bizitzen gelditu direnak?

Guri bereziki kuadrila batek deitu digu arreta eta horixe da joerak aldatzen hasi izanaren itxaropena sortzen diguna. Herriko mutil gazte kuadrila bat da eta bertako kide askok bikotearekin herrian bizitzeko erabakia hartu dute.

Erreportaje honetan, herriko mutilekin ez, beraien bikoteekin hitz egingo dugu. Ea lortzen dugun 4 emakume hauek pixka bat gertuagotik ezagutzea!



Joana Barriola

Aurkeztu zure burua:

Joana Barriola naiz, 31 urte ditut eta leitzarra naiz. Lekunberriko Agrozumos enpresan kalitateko teknikaria naiz. Nire zaletasun aipagarrienak bi-datatzea eta mendia dira.

Zerk ekarri zaitu Goizuetara bizitzera?

Alde batetik, nire bikotea herrira oso lotua egoteak, eta bestetik, Goizuetako bizimoduak. Ni Leitzako auzo batean hezi nintzen, herritik nahiko aparte, edo txikitik behintzat, horrela iruditzen zitzaidan. Askatasun handiarekin alde batetik bestera ibiltzeko lagunekin, eta nahi genuena egiteko. Haurtzaroko oroitzapen oso politak dauzkat. Gurasoak ere lasai egoten ziren, auzotik atera gabe egoten ginelako. Etorkizunean pentsatzean, nire haurtzaroko horrelako zeozer bilatzen nuen, eta Goizuetako bizimodua ikusita, bilatzen nuena aurkitu nuela iruditu zitzaidan.

Konbentzitu behar izan zintuen bikoteak hona etortzeko?

Ez, garbi neukan Goizuetan zoriontsu izango nintzela.

Gustura zaude hemen bizitzen?

Bai.

Zer aurkitu duzu Goizuetan?

Lasaitasuna, lagun onak eta familia eder bat.

Zer dauka Goizuetak beste lekuek ez dutena? Eta zer ez dauka besteek dutena?

Goizuetak daukana, dudarik gabe, herri txikia izatea eta, daukan kokapenarekin, azken urte honetan asko baloratu diren, askatasuna eta lasaitasuna.



Hala ere, haurrak izan ondoren nabaritu dut zerbitzu batzuen falta herrian, alde batetik, gaur egun pediatriaren munduan dagoen egoerarekin, haurrekin pediatriarengana joateko zailtasunak areagotzen zaizkigu. Bestetik, Goitiki laguntza handia den arren lan egiten dugun amentzat, haur eskolek eskaintzen duten zerbitzua ez izateak lan mundura bueltatzeko zailtasunak ematen dizkigu.

Horrelakoa imajinatzen zenuen Goizuetako bizimodua?

Bai, lasaia orokorrean eta oso bizia as-teburu eta festa egunetan. Herritarren izaerak ere asko laguntzen du herrian gustura sentitzen. Eta leitzarra izan

arren, etxean sentitzen naiz Goizuetan.

Zer aldatu eta mantenduko zenuke?

Lehen aipatutako bi zerbitzuak egongo balira, ez nuke ezer aldatzeko beharrik ikusiko.

Nolako bizimodua amesten duzu zure etorkizunean?

Gutxi gorabehera, orain dudana, nire seme-alabak ondoan izanez. Nire seme-alabak herritik joateko beharra ez izatea nahi nuke.

Amets hori hemen bete dezakezu?

Bai, noski.



Mayi Zelarain

Gertuan beste herririk ez izateak xarma berezi bat ematen dio herriari. Bertakoek duten herri izaera ere asko gustatzen zait, baita egunerokotasuneko harreman parekideak ere, tabernan, plazan... adin, genero eta interes ezberdineko jendea elkartzea, adibidez. Herri handiagoetako anonimotasunik ez da hemen, kar, kar.

Horrelakoa imajinatzen zenuen Goizuetako bizimodua?

Inoiz ez naiz horretan pentsatzen jarri izan; dezepzionatu nauenik ezin esan behintzat! Kar, kar... Azken batean, nik nire esperientziatik gustukoa dudala esan dezaket. Orain, lana dela eta, 16:00ak aldera iristen naiz etxera. Etxeko lanak egin eta egunaren araberak kirol apur bat egiten dut edota kafetxo bat hartzera joaten naiz. Entrenamendurik badut entrenatzera joaten naiz eta, bestela, lagunarteko mahai ingurua luzatzen dut. Nire bertako bizimodua lasaia da, baita asteburuetan ere, nahiz eta saltsa gehixeago izan.

Zer aldatu eta mantenduko zenuke?

Aldatu, ez nuke ezer aldatuko, beharbada, gehitu. Bertako jendea eta eskalkia mantenduko nituzke.

Nolako bizimodua amesten duzu zure etorkizunean?

Bizimodu askea eta lasaia, bai niretzako baita nire inguruko zein ondorengoentzako ere.

Amets hori hemen bete dezakezu?

Bai, noski. Inguruan primerako lekua daukadala iruditzen zait bai bizitzeko baita haurrak hezteko ere, herri txiki batean bizita eta natura gertu izanda esperientzia aberasgarri ugari sortzen direlako.

Aurkeztu zure burua:

Mayi Zelarain naiz, 25 urteko azpeitiarra. Irakaslea lanbidez. Mendian ibiltzea eta eskulanak egitea gustatzen zait.

Zerk ekarri zaitu Goizuetara bizitzera?

Nire bikotea hemengo da.

Konbentzitu behar izan zintuen bikoteak hona etortzeko?

Gure kasuan naturalki hartutako erabakia izan da, hau da, inork inor konbentzitu beharrik gabea. Hasiara batek hona etortzeko joera handiagoa izan dut nik, berak hara baino. Nik berak baino errazagoa ere banuen lagun artea egitea bestearen herrian, unibertsitateko bi lagun hemengoak baintuen, eta hori, horrelakoetan, ba-

besa da. Lehen asteburuetan (ikasketak eta lana direla eta) etortzen nintzen baina azkeneko urte t'erdian hemen bizi naiz. Azken batean gure izaerak, zaletasunak eta nahiak kontuan hartuta, gure bizi proiektuak hemen lekua zuela sinetsi izan dugu.

Gustura zaude hemen bizitzen?

Bai, oso gustura. Hasiara batean ez zitzaidan erraza egin bakarrik kalera irteeta eta egunerokotasunean moldatzea baina lortu dudala iruditzen zait.

Zer aurkitu duzu Goizuetan?

Lasaitasuna eta jendearen naturaltasuna.

Zer dauka Goizuetak beste lekuek ez dutena? Eta zer ez dauka besteek dutena?

Leire Sorrondegi

Aurkeztu zure burua:

Leire Sorrondegi naiz, 27 urte ditut, Urnietakoa naiz, irakaslea eta nire zaletasuna mendia da.

Zerk ekarri zaitu Goizuetara bizitzera?

Maitasunak.

Konbentzitu behar izan zintuen bikoteak hona etortzeko?

Egia esan nire bikotea baserrian bizitzera ohitua zegoenez, pisu batera bizitzera ez zela joango esan zidan eta niri baserriko bizitza beti gustatu izan zaidanez hona bizitzera etortzea erabaki genuen. Egia esan ez zitzaion asko kostatu konbentzitzea.

Gustura zaude hemen bizitzen?

Bai. Batzuetan herrimina sentitu izan dut eta gehiago egoera honek mugak ixtera behartu gintuenean, baina oso ongi zaintzen naute hemengo familia eta lagunak.

Zer aurkitu duzu Goizuetan?

Lasaitasuna eta askatasuna. Baita lagun onak ere.

Zer dauka Goizuetak beste lekuek ez dutena? Eta zer ez dauka besteek dutena?

Aurrerago esan bezala, beste herrietan ez dagoen askatasuna topatu dut hemen eta are gehiago igarotzen ari garen egoera honetan. Izan ere, mendia, erreka... ditugu lasai eta aske ibiltzeko. Bestalde, denok ezagutzen dugu elkar herrian eta familia txiki baten modukoa dela iruditzen zait. Gainera, hasieratik deigarria iruditu zitzaidan tabernetan edo edozein lekutan adin-tarte desberdinetako pertsonak batera esertzea. Harremanak estuagoak dira herrikoen artean. Ez dauzkan gauzen artean, pediatarren beharra azpimarratu nahiko nuke. Haurren



beharrak asetzeko pediatria izatea beharrezkoa iruditzen zait eta baita hurrei loturiko beste hainbat baliabide ere. Eskatzen hasita, Hernanirainoko autobia bat ere ez litzateke gaizki etorriko. Jejejeje

Horrelakoa imajinatzen zenuen Goizuetako bizimodua?

Bai. Bizimodua lasaia den arren eta askok ezer ez dagoela uste duten arren, giro ona egoten da herrian eta ekitaldiak ere egin ohi dira. Gainera, kuadrila eta familiarekin denbora pasatzeko herri bikaina da.

Zer aldatu eta mantenduko zenuke?

Kontuan izanda gaur egungo gazte gehienek herritik alde egiten dutela eta herrian etxebizitza asko hutsik daudela, gazteak herrian gelditzeko etxebizitza aldetik aukera gehiago edukitzea aldatuko nuke. Goizuetak daukan herri izaera mantenduko nuke.

Nolako bizimodua amesten duzu zure etorkizunean?

Gaur egun nagoen bezala jarraitzea amesten dut, familia handitzen jarraituz eta osasunez betea.

Amets hori hemen bete dezakezu?

Bai, nire ametsak betetzen ari naiz eta herri honetan bizitzeak ez dit oztoporik jarri amets horiek betetzeko.



Ana Mindegia

Aurkeztu zure burua:

Ana Mindegia Iribarren naiz. 26 urte ditut, Doneztebekoa naiz, ileapaintzailera eta estetizista eta nire zaletasuna eskubaloia da.

Zerk ekarri zaitu Goizuetara bizitzera? Konbentzitu behar izan zintuen bikoteak hona etortzeko?

Maitasunak eta batez ere lanak. Martinek beti esan du Goizuetan bizi nahi duela. Konbentzitu? Ez, momentu hartan nik Donezteben egiten nuen lan eta argi neukan ez nuela nire lana utziko hona bizitzera etortzeko, Maialen Apezteak berarekin Kiribilean lanean hasteko eskaini zidan arte. Momentu hartan ez nuen bi aldiz pentsatu.

Beraz, bikoteaz aparte Maialenek ere badu kulpaa.

Gustura zaude hemen bizitzen?

Bai, bakoitzak bere herria beti botatzen du faltan baina egia erran gustura. Sumatzen da herriko jendeak pozez hartzen duela herrikoen bikoteak herrira bizitzera etortzea, eta hori eskeretzekoa da.

Zer aurkitu duzu Goizuetan?

Suerte handia, familia eskuzabal eta jator bat, kuadrilla ikaragarria eta herritar ireki eta alaiak.

Zer dauka Goizuetak beste lekuek ez dutena?

Herri ttikia izateagatik daukan lasaitasuna eta kokapenari dagokionez daukan askatasuna. Deigarria da herritar guztien artean dagoen harreman estua. Kafe bat hartzera ateratzen zara eta edozeinekin har dezakezu, erosketagaitera joan eta edozeinekin solasean aritzen zara.

Eta zer ez dauka besteek dutena?

Zerbitzu aldetik aukera gehiago eskaintzen ditu Doneztebek, horrek lan eskaintza ere handiagoa dakar. Herri gehiago ditu inguruan, errepideak... errazagoa da gaztearentzat kanpoan



lan egin eta herrian bizitzea. Horixe da Goizuetari gehituko niona.

Horrelakoa imajinatzen zenuen Goizuetako bizimodua?

Bai, Goizuetara bizitzera etorri orduko denbora aunitz pasatzen nuen hemen. Bizimodu lasaia, jendea kalera aunitz ateratzekoa da, elkartzekoa, herri izaera handia du. Nabarmentzeko zerbaitekin, herria astez eta asteburuan nola aldatzen den, bikoiztu egiten da. Orokorrean antza handia du bizimoduak. Paisaia, kultura, festa, kirola... antzekoa da.

Zer aldatu eta mantenduko zenuke?

Mantendu duen guztia... Herri lasaia da, beharrezko zerbitzuak baditu egunerokoa egiteko. Aldatu, gauza gutxi. Ni beste herri batetik heldu naiz, horrek esfortzu bat dakar. Leku askotan entzun dut gero eta gutxiagora doala Goizuetara, gure kuadrilla izan daiteke salbuespena. Guk egindako esfortzu bera eskatuko nieke bertako gazteei, baina kontrako aldera, Goizuetara ez dadila asteburutarako bakarrik gelditu. Aldatzeko gauza horietako bat etxebizitzaren egoera.

Nolako bizimodua amesten duzu zure etorkizunean?

Konfinamendu eta egoerari dagokion murrizketarik gabea. Inguruko eta ondorengoekin, denak osasunez eta lasai bizi gaitzean amesten dut.

Amets hori hemen bete dezakezu?

Bai, hemen bizitzeak ez dit oztoporik jartzen, kontrakoa baizik. Nik uste azkeneko urte honetan denak konturatu garelako herri ttikietan bizi garenok bizi kalitate hobea daukagula.

Garaiak eta ohiturak aldatu direla edo aldatzen ari direla ematen du eta bizi eredu berri honek herri txikiari mesede egingo dielako esperantza eta ilusioaren itxaropenean gaude.

Beraz, oraindik ez baduzu erabaki non biziko zaren, hauek hasitako bideari jarraitu. Edota beste norbaitek pausoa emateko zain zaude? Kuadrilako lagunak erabakiek uste baina eragin handiagoa ote dute bikote baten bizileku erabakian ere?

Batzuek egin dute apustua; hor dago edo galdu!

Jose Ramon Minondo goizuetarraren gutunak

1790-1807

1. Gutunak non azaldu diren

Orain dela urte bete pasatuxe eman ziguten notizia, Goizuetan, etxe batean, eskuz idatzitako dokumentazio asko agertu zela, eta eskuizkribu haien artean batzuk bazirela euskaraz idatzitakoak.

Bi aldiz pentsatu gabe, usu eta fite, batekin eta bestearekin hitz egin ondoren, hantxe ginen gutunak ikusten. Mari Pilar Untxalok zituen bere dendan dokumentu guzikiak: mostradorea, mahaiak, aulkien gainak, dena liburuz eta paperez betea. Hantxe zeuden pilatxo batean baztertuak euskaraz idatzitakoak.

Nonbait, **Paskualuzenea** (“Paskól-tzenè”) hustu behar omen zuten etxe berriak edo pisu berriak egiteko, eta hustuketan lanak egiten hasi zirenean,

bigarren solairuko alkoba batean zegoen kutxa ireki, eta jantziak, arropa txuria, maindireak... ateratzen hasi zirenean, azpian, hainbat liburu eta paper aurkitu omen zituzten. Gehienak eskuz idatzitako liburu eta paperak. Urteak eta urteak zeramatzaten paper haiek denak han lotan!

2. Noizkoak diren

Aurkitutako dokumentuak XVIII. eta XIX. gizaldiaren hasierakoak dira. Zenbait liburutan (gehienak kontabilitate-liburuak dira) eta gutunetan argi aski agertzen da data. Euskaraz idatzitako gutunok ere tarte horretan kokatzen dira: 1790etik 1807 bitartean, eta gehienetan data argi adierazten da. Hamazazpi urtetan zehar batzuek eta besteek izandako gorabeherak kontatzen dira.

3. Dokumentazioaren eta gutunen gaiak

Denetarik dagoen arren, gehien-gehienak komertzio-harremanak eta kontabilitate-kontuak dira, hau da, salerosketa kontuak, bai hemengo eta bai kanpoko herri edo hiriekien (Caracas, Buenos Aires...) izaten zuten harreman komertziala, hemendik zer eta zenbat eramaten zuten, eta handik zer eta zenbat ekartzen zuten.

Euskarazko gutunetan, eta gaztelaniaz dauden beste hainbatetan, 1790-1807 garai horretako burdinoleta (diru-)kontuen berri ematen da, hots, burdinoletan nolako gastuak izaten ziren: oletan zeinek lan egiten zuen, zenbat zor zitzaion, zein gastu egiten ziren, zein diru-sarrera zuten, zer gertatzen zitzaion, garai hartako subastak edo enkanteak (“kandela jotzeak”) no-



la egiten ziren, oletan izaten zituzten matxurak... Hau dela eta, askotan hiztegi teknikoak agertzen da, olen eta burdinolen arlokoa: oletako zatiak, tresnak, egiten zituzten piezak, garai hartako neurriak, txanpon motak... Horretaz gain, olen inguruko baserri, baso eta mendietako leku-izenak ere ugari agertzen dira: itzainek nondik nora eramaten zuten egurra edo ikatza, bideak non egiten zituzten, jendea zein baserritakoa zen... Azken batean, zer-nolako bizimodua egiten zuten argitzen laguntzen digute gutunok.

4. Zenbat gutun diren

Esan bezala, dokumentazio ugari dago. Gehiena gaztelaniaz dagoen arren, euskaraz idatzitako gutunak mordoxka dira, eta Jose Ramon Minondok idatzitakoak 318: batzuk oso laburrak, eta beste batzuk, berriz, luzeagoak, kuadernotxo modukoak, baina gehienek orri bakarra hartzen dute. Batzuetan testu gutxi agertzen da, burdinolen kontuen errendamendua ematen delako (zeinek zer egin duen, zenbat egun/ordu sartu dituen, zenbat material eraman den, nori zenbat zor zaion... Hau da, egunak, prezioak, neurriak, kopuruak eta beste agertzen dira. Beste batzuetan, berriz, testu luzeagoa aurkitzen dugu, bereziki gertaeraren bat kontatzen delako edo hainbat azalpen ematen direlako.

5. Nondik idatziak

Gutun gehienetan, bukaeran, lekua eta data agertzen dira. Hasiera batean, gutun askotan Olaberria eta segidan data ikusten genuenean, uste genuen Goizuetako Olaberria ola izanen zela. Baina, luze gabe, *usteak erdi ustel* zirela ohartu ginen. Gutunetan agertzen ziren izenak eta leku-izenak ez zirela Goizuetakoak konturatu ginen, beste nonbaitekoak baizik; nongoak izanen, eta Oiartzungoak!

Aztertu diren gutun hauek, hortaz, Oiartzungo *Olaberria* burdinolatik Jose Ramon Minondok idatzitakoak dira; hango jende, baserri eta leku-izen

asko agertzen dira gutunotan. Baina badira beste gutun mordoxka hango eta hemengo oletatik beste egile batzuk idatzitakoak. Badira Arranbideatik idatzitakoak, Elamako olatik, Ainhoatik (Lapurditik) idatziak, Donibane Lohizunetik, Goizuetatik bertatik idatzitako bakarren bat edo beste ere bada. Garai hartan Artikutzako Goitzaringo olajaunarekin bateko eta besteko burdinolek nolako hartu-emanak izaten zituzten erakusten da gutunotan; burdinolen arteko harreman-sare horren adierazle dira, besteak beste.

6. Nork idatzitakoak diren

Goitixeago aipatu bezala, gutunak sinatzen dituen Jose Ramon (de) Minondo da. Gehien-gehienetan modu berean bukatzen ditu izkribuak, lekua eta data idatzi ondoren gaztelaniazko esapide honekin despeditzen da: *su serv.or* [Su servidor] *Jose(ph) Ramon (de) Minondo*.

Goizuetan jaioa (1763-03-28), eta gutxienez 22 urte arte *Kapelugorri* etxean bizi izana. Maria Paula Huitzi-rekin ezkondu zen Goizuetan bertan 31 urterekin, eta Oiartzuna joan ziren bizitzera, han egingen baitzuen lan Jose Ramonek hainbat urtetan *Olaberria* olan, hango kontuak eta gorabeherak eramanez.

Badakigu gero Oiartzundik Goizuetara itzuli zirela atzera bizitzera, zeren 1825eko erroldan Maria Paula eta Jose Ramon herriko *Otxolo* etxean bizi zirela agertzen baita.

7. Nori zuzenduak diren

Gutun askotan hartzailearen izen-abi-zenak ageri dira: *A don Juan Bau(p) tista de Minondo*, eta azpian *que Dios muchos años [guarde]* formula laburtua heldu da, eta beheitixeago *Goyzarin*.

Goitzarin Artikutzako ola zen (olaren erretoak oraindik bistan daude erreka ixkinean) eta han bizi izan zen Juan Bautista bere emazte Ana Josefa Iberorekin. Burdinolako nagusia zen,

eta beste hainbat burdinola ere bazituen errentan hartuak; besteak beste, *Elama* (errekaz *Goitzarin* bera baino goitixeago), *Arranbide* eta gutunotako Oiartzungo *Olaberria* burdinolak. Hauetatik denetatik errendatzen zituzten kontuak Juan Bautistari.

Goizuetan jaio zen 1740ko urriaren 31n eta bertan hil 1810eko abuztuaren 16an. Hainbat agiriren arabera, *Paskualuzenea* etxea berea zen (eta hantxe agertu dira gutunok!!), baina Artikutzan, Goitzarinen, hainbat urte pasatu izanen zituen, hara zuzentzen baitzikiote gutun guztiak.

Gutunik gehien-gehienak «Nagusi Jauna» esapidearekin hasten dira, eta ondotik heldu da gainerako informazio guztia. Azpimarratzekoa da beti “berorika” hitz egiten diola Jose Ramonek olajaunari eskutitzotan.

8. Gutunen garrantzia

Zer on dakarkigute eskutitzok? Mota honetako oso testu gutxi dira ezagutzen direnak, erlijioz aparteko gaiak jorratzen dituzten testuak urriak eta eskasak dira gure literaturan, eta laburrak. Gainera, burdinolen gaiaren ingurukoak dira eta gutunotan azaltzen den hiztegia ere, hein handi batean, teknikoak dela esan daiteke, burdinolatan ohikoa zen hiztegia usu agertzen baita (adib. *antepara, gezurraska, hondaska, kabiguña, haizarka, tormenta-egia, tobera, ispiak, haxiak...*).

Ez dira testu landuak, erlijiozkoak izan zitezkeen bezalakoak; ahozko hizkuntzaren erabileratik hurbilago daude idatzizko testu landuetatik baino. Horrek ezberdintasuna erakusten digu, eta berritasuna dakarkigu gure euskarazko testuetara. Gainera, ez da gutun bakan isolatu bakarria, 318 dira!!! Horrek gorputz edo oinarri sendoa ematen dio erabiltzen den hizkerari eta hizkuntzari.

Herrian agertu diren gutun hauek orain dela 200 eta gehiago urteko gure aieka honetako euskara nolatsukoa zen erakusten digute eta, neurri batean, gaurkora nola iritsi garen azaltzen digute.

GUTUNAK

1793.04.22

Nagusi jauna:

Suerte¹ hartu diet 16 kuartilluan;² 15 kuartillu ofrezitu nion asteartean, ta 16 kuartilluan paratuko dutela, nahi duenak hartu, ez dutela berago jaitsiko esan didate. Paratu dute hamaseiean ta hartan itzali da,³ ta erreal bat eman diot. 3.600 karga 16 kuartilluan, tantoa⁴ erreal bat, ta hamaikakakoan gastatu da 6 pezetas y 25½ cuartos.

Probestuak⁵ esan dit, hamaiketako pagatzera jua naizanean, gastu puxka bat gehixeago izanen dudala noski, arratsaldeko⁶ haragi puska bat maneatzeko⁷ agindu dutela sagardotegian. [...]

Nagusi Jauna suertea da
 15 kuartillu ofrez
 astean ta 16 kuartilluan
 tela nahi duenag astu es
 go Jaitsiko esan didate par
 seican ta astan ytzali d
 bat eman diot 3600 ca
 lluan tantoa erreal bat
 tacaan gurratu da 6 pez

¹ Zotz eginda tokatzen zen lur puska. Euskaraz beste leku batzuetan zortea deitu izan dena.
² Kuartilua, diru mota bat.
³ 'Itzali da kandela', kandela edo argizari enkantea baitzen hau. Enkantea edo subasta egiten zen argizaria itzali arte.
⁴ Tantoa: edaria. Tanta, ttantta.
⁵ Herrizainak.
⁶ 'Arratsalderako'.
⁷ 'Prestatzeko'. Goizuetan gaur egun *manetu* entsalada, eltzea edo lurra *manetzen* da.

1801.09.15

Nagusi jauna:

Agerren¹ sei anega² baba dira ta olarako asmoan nik geldituak daude saldu gabe. Hagitz baba ona da, baño hamaika pezeta balio du, eta guziak 66 pezeta, lau urretxikien gañera.³ Hoiiek beal bitza⁴.

Hortik etorritako buztanduak⁵ erdia tiratu ta eratsi⁶ gabeak, ta beste erdiak tiratzekoak daude. Eta olatxo-koak, gaur Errenterian pillota yokoa da-ta, arratseko etorriko direla joanak han dira, berdin lanak akabatu-ko direla ostiral arratseko, ta bigar goizean hasi ta etzi arratsaldean entregatzeko modua izanen dugu. Txabalak ta gero tretxu⁷ ale batzuek dira kuadro egiteko. Egunen batekoa lana, euririk ezpada. [...]

Nagusi Jauna Agerren
 ta Olarako Asmoan nig
 Agerren baba onada baño
 guziak 66 pezeta balio du
 bitza = Orlaxo Errenterian
 Errenterian gaur ta beste es
 olatxo-koak gaur Errenterian
 Errenterian Errenterian dixela
 nag Agerren dixela
 errenterian ari ta Errenterian
 modua Errenterian dugu Er
 batzuek dixela kuadro Er
 Errenterian ezpada = Errenterian

¹ Agerre: Oiartzungo baserria.
² Anega: fanega. Edukiera neurria.
³ 'Lau urretxikiez gainera'.
⁴ Bidal bitza [berorrek].
⁵ Buztanduak: nolabaiteko *buztan* itxura zuten piezak.
⁶ 'Erantsi'. Goizuetan orain *iratsi*.
⁷ Txabalak burdin xafla zabal batzuk ziren, esaterako idi ferrak egiteko ibiltzen zirenak. Eta *tretxuak*, bestalde, *kuadroak* egiteko ibiltzen ziren.

Arainburu-Umore Ona Mendi Taldea



Agoñoako ibilaldia.

Herri inguruan antolaturiko mendi ibilaldi baten ondotik ikusi zen herrian bazegoela mendian taldean ibiltzeko gogo. Gainera, bertan dauzkagun baina ezagutzen ez ditugun txokoetan barrena ibiltzeko berta ematen zuela ikusi zen. Kasu hartan Agoñotik abiatuta, Aranon barrena, Goizuetara egin zen ibilbidea, garai batean Hernanitik Goizuetara etortzeko erabili zitekeen kamio zaharraren ibilbidea jarraikiz.

Erantzuna? Harritzeko modukoa, 20-30 pertsona, adin desberdinetakoak eta denak sintonia ederrean. Hortaz, herrian mugimendutxo bat sortu zen gehiagotan horrelako irteerak egiteko gogoarekin. Herrian bilera pare baten ondotik, zerbait zehaztea erabaki genuen: Arainburu Mendi Taldea osatzea.

Hasiera hartan hainbat komeri izan genituen, lehendabizikoa izena aukeratzeari. Buelta batzuk eman ondoren hartu zen erabakia: Arainburu. Arrazoi xumearengatik, herrian dagoen mendi-tontor altuena delako eta aldi berean ez hain ezaguna. Hortik aurrera taldetxo egonkor bat osatzea erabaki zen eta gaur egun taldearen antolakuntzan bost herritar gabilta: Igartzeta Apezetxea, Patxi Etxeberria, Mirari Etxegia, Olatz Zabala eta Naroa Zugarramurdi.

Taldea osatutakoan, herriko Umore-Ona elkartearekin harremanetan jarri ginen. Eginiko bileren ondoren bertako beste sail baten modura antolatzea erabaki genuen. Honek abantaila batzuk ematen dizkigu, garrantzitsuena mendiko kirolean federatzeko aukera. Horretarako ordea

Umore-Ona elkartearen estatutuetan espreski idatzita etorri behar da mendiko kirol saila. Horretarako elkarte-ko juntarekin elkarlanean aritu gara eta bide batez esker ona adierazi nahi genieke.

Behin taldea osatuta hurrengo pausoa irteerak antolatzen hastea izan zen. Lehena, 2020ko udaberrian egiteko asmoa geneukan Goiko zentraletik abiatuta buelta arina egiteko, eta hara non, ditxosozko Covid-19a agertu zen. Egoera ikusita ezin aurrera jarraitu eta alde batera utzi behar. Egoera bere onera zetorrelakoan berriro antolatu genuen irteera berdina eta automatikoki testuinguru guztia berriro okertu zen eta alde batera utzi behar izan genuen. Mendi buelta hura madarikatuta zegoela ematen zuen eta horregatik, eta tartean jendeak ibilbidea hura ba-



herria bizitoki



Batzordeko kideak.

naka egiteko aukera izan zuelako, alde batera utzi genuen.

Ahazteko moduko 2020. urtea amaitzeko puntuan zegoenean birusak lehen irteera egiteko aukera utzi zuen urte zahar eguneko goizean. Mandoegira joan etorria egiteko asmoa geneukan eta kasu honetan, eguraldia izan genuen aurka, elurte polita

bota zuen 600 metrotik gora eta bidea asko zailtzen zuela ikusita moldatu beharra izan genuen. Hori bai, kostata baina lortu genuen lehen ibilaldia egitea. Hurrengo Neku aldera izan zen, ibilbide motx eta zelaia, adin guztietako jendearentzat aproposa. Azkena, berriz, Arainburura egin dugu. Izena eman digun mendira irteera egitea

Nekuko ibilaldia.

ezinbestekoa zen eta ordurako mendi puntan buzoia jartzea lortu ez genuen arren horretan gabiltza lanean.

Eta hemendik aurrera zer? Ideiak asko, baina poliki-poliki joatea erabaki dugu. Garrantzi gehien mendi ibilaldiei emango diegu hasiera honetan. Lehenik, inguruko mendi eta parajeetan barrena ibiltzea polita iruditzen zaigu eta, horien ondotik, beste irteera desberdin batzuk egitea, inguruko herrietara joatea edo Pirinioak bezalako mendietan barrena ibiltzea. Zailtasunari dagokionez, aniztasunaren aldeko apustua egiteko asmoa dugu. Ibilbide batzuk errazak izango dira, edo nork egiteko modukoak, eta beste batzuk aldiz, gogorxeagoak.

Hasi besterik ez gara egin baina gogotsu gaude eta edozein ekarpen ongi etorria izango da. Bide batez, antolatutako irteeretara gerturatu zaretan guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu, erakutsitako jarrera eta umorearengatik.

Pabi Etxeberria Aranaz



Biraoak

Goizuetako hizkeran

Hizkuntza garbia omen da euskara, biraorik eta hitz itsusirik gabekoa. Hala dio topikoak, eta hala dio *Aitorren hizkuntza zaharra* kanta ezagunak: “txukun ta argia, biraorikan ez duen hizkuntza garbia”. Jakina, ez da egia. Izan ere, euskara hizkuntza osoa da eta, gainerakoak bezala, maldizioak, irainak, juramentuak eta biraoak adierazteko moduak eta baliabideak eskaintzen dizkio hiztunari.

Hizkuntza guztiek, eta gureak ere bai, badituzte era guztietako sentimenduak, emozioak eta egoerak adierazteko moduak. Hori gabe hiztunari ez liokete balioko, eta etorkizun eskasa izanen lukete.

Euskarak baditu, beraz, hori guztia modu adierazkor batean adierazteko behar diren hitzak eta esapideak, baita Goizuetako euskarak ere, noski. Eta

aberastasun hori aztertuta, jasota eta laburtuta dago Juan Jose Zubiri Lujanbio goizuetarrak Peio Kamino eta Patxi Salaberrirekin batera idatzitako artikulu batean. Artikuluaren titulua “Goizuetako hizkera adierazkorra: biraoak” da, eta *Fontes Lingua Vasconum* aldizkariaren 99. zenbakian (411-451. or) argitaratuta dago.

Artikuluak hitz eta esapide asko bildu eta sailkatu egin ditu, adibide mordoxka bat emanda. Horietako batzuk ekarriko ditugu XAPOko artikulu honetara, erakusgarri gisa, baina horretan hasi baino lehen egileek berek sarrean egindako pare bat aipamen edo ideia ekarri nahi ditugu:

Alde batetik, egileek aipatzen dute biraoak-eta sortzeko, gure herriko hizkerak eginda eskaintzen dizkigun baliabide horiez gaitu, hiztunaren trebezia

ere oso kontuan hartzekoa dela, hitzak-eta konbinatzeko garaian esate baterako. Honela dio artikuluak:

“Horien konbinaketak egiteko moduak, esamoldeak eratzeko erraztasunak, metaforak sortzeko irudipenak, bai eta, zenbaitetan, forma berriak asmatzeko gaitasunak ere zerikusi handia dute hizkuntzaren barietate honen erabilerarekin”.

Alegia, hiztun trebeak etekin handiagoa aterako diela hitz eta esapide horiei guztiei, haiek konbinatuz eta haiekin “jostatuz”.

Eta, beste alde batetik, birao guztiak ez direla berdinak ere jakinarazten digute, alegia, gogortasun mailan ere aldeak egon badaudela. Honela azaltzen dute:

“Zernahi gisan, aitortu beharra dago birao guztiak ez direla maila bere-

koak, eta ez direla modu berean erabiltzen ere. Ez da gauza bera norbaiti “Hau zozoa!” esatea (graziarik ez duela adierazteko, esate baterako), edo “Zerri urde putakumea!” deitzea. Esaterako, errabia, haserre, amorrazio edota gorroto handia adierazteko hiru-lau maldizio segidan botatzea normala da (cf. urde zorrizu zimazu ergel potro-handia), eta esandakoei beste hainbeste gaineratzea ere bai. Hortaz, nolako barnesentimendua den eta adierazi nahi den, halako mailaketa eginen da eta birao kopurua agertuko.”

Eta artikulua eragileen ohar horien ondoan, artikulua laburpenarekin hasi baino lehen, bestelako ohar bat ere egin liteke, hizkera adierazkor horren inguruan: hizkuntzak erabiltzeko dira, eskaintzen dizkiguten tresna eta baliabide guztiak, eta eskura dauzkagun bitarteko horiek hizkera bizia goa, eraginkorra eta indartsuagoa lortzeko balio digute. Baina gizariek eta hizkuntzak aldatu egiten dira, jakina, eta Goizuetan erabili izan diren esamolde guztiak, edo Goizuetan erabili izan diren birao edo maldizio guztiak, ez digute gaur egun berdin balio. Are gehiago, hitz eta esapide horietako batzuk, gaurko gure begietan behintzat, desagokiak gertatu daitezke eta ez genituzke erabiliko: atzean gordezten duten esanahiengatik, akats fisikotzat hartzen direnak iraintzeko aitzakiatzat hartzen direlako, kolektibo jakin batzuekiko mespretxuagatik, edo beste arrazoi batzuegatik.

Bai jatorrizko artikuluan eta bai hemen egiten dena deskribaketa hutsa da, erabili den eta erabiltzen den hizkera baten deskribaketa alegia. Eztabaidatu liteke, jakina, egoera jakin batzuetan inor iraintzea edo biraoak botatzea egokia den edo justifikatuta dagoen, baina ez dugu eztabaida hori hemen eta orain eginen, gure asmoa beste bat baita.

Baina desagokitasunak desagokitasun, jasotako adibide horietako askok ziur asko bai, balioko ligukete, hainbat momentutan gure adierazi beharrak asetzeko. Adibide horiek, edo ho-

rien antzekoek, edo gaur eta aurrerantzean asma genitzakeenak. Kontua da, azken batean, hizkera adierazkor baten jabe izatea, esan nahi dugun guztia esan nahi dugun bezala esan ahal izateko.

Eta ohar orokor horiek eginda, ekar ditzagun gure artikulura Zubirik, Kaminok eta Salaberrik jasotakoak, ezinbestean oso-oso laburtuta. Artikuluan hitzak edo esapideak adibideekin eta argibideekin lagunduta datoz, baina hemen, jakina, ez dugu hori guztia emateko espaziorik. Gure gomendioa, beraz, artikulua irakurri ondoren, iturrira joatea da, eta *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian artikulua osoa irakurtzea da. Interneten dago, bilatzailean artikulua titulua jarrita berehala aurkituko duzue (“Goizueta-ko hizkera adierazkorra: biraoak”).

Harridura hitzak eta esapideak

Hitz eta esapide hauek haserrealdia adierazteko balio dute, besteak beste, baita beste gauza askotarako ere. Ez dute entzulea zuzenean iraintzen, baina haserre hori edo irain hori hitzez laguntzeko balio dute:

Arraioa; dedion, dedio, dedios, redios, redio; demontre, demontres; izorrai; jobar, jode(r), jolines, jopa, jope; kakazarra; koño, errekoño, errekoñe; lalebita; laospa, ospa(s); laostia, ostia(s); laostira, ostra(s); lapuñeta, puñeta(s); laputa; mekaguen, mekaben, mekauen.

Aston bioliña!; Aston buztana!; Aston potrok!; Zakurran alua!; Zakurran putza!; Zakurran barrabilak!

San Jurjon abarkak!; San Pedron bioliña; Jangoikon birotek!, Jangoikon motil pekatu ori!

Hitzen eta esapideen esanahiaren arabera sailkapena

Haserre eta biraoak adierazteko erabiltzen diren hitzak eta esapideak esanahiaren arabera ere sailka daitezke,

eta hala egiten du artikulua atal honetan. Eta, nolabait esateko, bi multzotan biltzen ditu: alde batetik, eta hitzez hitz, “akats fisikoei erreferentzia egiten dieten hitzak eta esamoldeak”; eta, bestetik, “nortasunari erreferentzia egiten diotenak”. Argiago ikus dezagun, honatx adibideak:

Akats fisikoei erreferentzia egiten dieten hitzak eta esamoldeak:

Ankaiar, ankame (hankaihar, hankamehe); ankazikin; aultzaundi (ahutzhandi); beieskel (begiezel); belarriaundi, belarriluze; buruaundi; epurdiaundi; iartu; lepaiar, lepame (lepaihar, lepamehe); mutur, muturzikin, muturluze; ortzamakets; tripaundi, tripontzi; arbaztak (=hankak); gazta (=burua); meloi (=burua).

Nortasunari erreferentzia egiten diotenak:

Alu; aluita; alux, aluxa; antsikabe; aozabal; arro arroputz; artaburu; asto, astakirten, astalore, astapito, astapetro, astapuska, astazakil; azkenkarena; babalore; babu; barrabillaundi; bixiu; burugabe; buztanaundi, buztanbero; demoniarre; enbustero/-a; erdezu (lerdezu); ergel; espantoso; fanfarroi; faltso; gaixo; gezurtero/-a, gezurtioso/-a; gibelandi; gizajo, gizaxo; inbidioso/-a; intxixu; ipurterre; itzontzi; kabroi; kaiku; kakalardo, kakalikardo; kankallu; kakazu; kake-rra; kakontzi; kapritxoso/-a; kasketoso/-a; latoso/-a; lotsa(a)be; madarikatu; mañontzi, mañoso/-a; marimaistra, marimandona, marimatranka, marimutil, marisaltsera, marisorgiñ, marizikin...; melontzio; mingainzikin; mixeule, mixeule, mixerable; miztoluze; mokote; kokoso/-a; momolo; mukizu; muturraundi; muturbeltz, muturbero, muturluze, muturzorrotz; nazkarri, nazkante; ñañu; odolki; olio, ollanda, ollar; paioso; pantasioso/-a; pelele; pixontzi, pizontzi; potroaundi; potroso; pupuaundi; puta, putakume, putaseme; putanero; putzuritu; setoso/-a; temoso/-a; tonto/-a; tontolio; tranposo/-a;



tripero; txatxu; txoliñ; txoriburu; txoro, txoralda; txotxolo/-a; txulo/-a; umemoko; urde, urdanga; xaor (xabor); zakur; zarratatu; zarri; zepel; zepeltzio; zikiñ, zimaluze; zimazu; zirindu; ziroldu; zital; zoldazu; zorrizu; zozo; zur, xur.

Esandakoa indartzeko moduak

Aipatutako hitz eta esapide horien birtartez esandakoak izanen du nahikoa indar eta adierazkortasun ziur asko. Hala ere, indar hori areagotzeko moduak ere badaude, eta horiek ere jasota daude artikuluan. Honakoak, esate baterako:

- Alako; alana; alantako; bai; demonio; ez bestena; iraukikan; uxe; zar.
- Zarri alako orrek in do oain e berea!
- Txoroa, alantako txoroa.
- Bai zarria zala!
- Demonio zorrizua, nola io da gotti!

- Zorrizu mukizu ez bestena!
- Txoro iraukikan, zu, zer tzailtza or itxura orrekin!
- Uxe lotsagabe zikina!
- Urde zar madarikatua!

Irain hitzen mailak

Artikuluak, beraz, hitz eta esapideen bilduma moduko bat egin du, eta horiek sailkatuta eman dizkigu, esanahiaren arabera. Horiek indartzeko moduak zein diren ere azaldu digu, baina horretaz gainera, beste era batean antolatuta eman dizkigu, "gogortasun mailaren" arabera sailkatuta hain zuzen ere. Izan ere, denak ez dira maila berekoak, eta badaude, arintzat jo litezkeenak, erdi mailakotzat, eta baita gogortzat ere. Hala sailkatu dituzte, izan ere, artikulua egileek.

Esate baterako, eta eman dituzten adibideetako batzuk hautatuta, honela sailka daitezke:

- Arinak: alubita, kakazu, odolki, tontolio, zozo...

- Erdi mailakoak: astazakil, ergel, kakerre, nazkante, urdanga, zirindu...
- Gogorrak: azkenkarena, kabroi, zarratatu...

Hitzak eratzeko moduan oinarritutako sailkapena

Azkenik, artikulua bukaeran, egileek beste sailkapen bat ematen dute, hitz eta esapide horiek eratzeko moduari erreparatuta, ikuspegi linguistikoa eta tekniko batetik begiratuta, nolabait esateko: atzizki eta bukaera bidez eratzten diren, postposizioekin, izen + izenondoez osatuak diren, izen elkarketaren bidez, edota hitz bakunak diren.

Horraino, beraz, artikulua aipamena edo laburpena. Esan bezala, gure gomendioa artikulua osorik eta patxadaz irakurtzea da, ikasteko eta entretenitzeko bide polita izanen da eta. On egin.

Goizueta iruditan

Goizuetako aberastasuna eta Goizueta nola-koa den erakusteko balio izaten digu XAPO-ko atal honek. Herritarrek egindako argazkiak baliatzen ditugu, herriak eskaintzen digun edertasun hori denok gozatu dezagun eta herriak dituen aurpegi ezberdinez jabetu gaitezten. Oraingoan Iñaki Etxeberriari eskatu diogu laguntza eta hementxe duzu emaitza: Goizuetako hamaika argazki eder, naturaren pisu nabarmenarekin, denon gozagarri.



Goizueta hormapean.



Mandoegi elurtua.



Erroiarriko ur-jauzia (Artikutza).



Añarbeko urtegia.



Orreagako mugaria Artikutzan.



Bordaberri.





Añoneko Trikuharria.



Enobietako urtegia 2019ko udaberrian.



Zubi handia.



20

iruditan



Behorra Mendibillan.



Berdabioko zubia.



Abu Dhabi & Dubai

Iban Eskudero Abu Dhabin lanean dabil azken hilabeteetan, Traditional Souq ize-neko merkataritza zentruaren sabaiaren muntaketan. Ea zer kontatzen digun!

€z da oso ohikoa izaten bidai baten helmuga norberak aukeratua ez izatea, biño ni ez naiz turismoa itterra torri, lanera baizik. Eta hala ez bazen ez tute uste iñoiz Arabiar Emirerri Batutara torko nitzakenik, nahiz ta horrek ez-tun san nahi eztenik esperientzi aberas-garria izaten ari.

Arabiar Emirerri Batuk Persiar Golfo-ko herrialde tiki bat dia, dela apenas 50 urte sortua. Izaunak beraien petrolio, lu-jo eta haundikeringatik. Halere bertako gauzaik kuriosona populazioa da. Biz-tanlerin % 85a ez da bertakoa, "expat" baizik, munduko txoko difentetatik bizi-modu hobe baten billa torritako jendea, gehienbat India, Pakistan, Bangladesh ta Filipinatakok. Horren ondorioz, bertako gastronomia, janzkera, erlijiok ta ohiturak arrunt presente daude Emire-rritako eunerokotasunen. Gainera, nahiz ta bertako hizkuntza ofizialak arabiera ta ingelesa izan, askoz gehio aitzen da hindia edo urdua, ta jende askok ezto bertako hizkuntzak jakittekoko beharrik sentitzen.

Lehen aipatu bezala, inmigrantek bizi-modu hobe baten billa tortzen dia, nahiz ta horrek ez-tun san nahi lortzen dutenik. Obrako langillek *labour camp* (langille kanpamentu) batzutan bizi dia, gela beren 10 langille biño gehiok lo iñez, be-raien familitatik urrutu, askotan 400 €-ra alletzen ezten soldatan erdia haieri bial-

Burj Khalifa, munduko eraikin altuena 828m, Dubain.



Fossil Rock, Dubai.



Burj Al Arab, 7 izarreko hotela Dubain.



Gold Souk.



Abu Dhabi Mangroves National Park.



tzeko. Klima ere oso goorra da, negun goxo eoten da 20 gradutan, biño apiril-letik urrira temperaturak asko jotzen dia, ta udako hillabetetan eunez ezin da kalera atere re in. Horretik bertako aisialdia leku itxitan itten da, zentro komertzial, jatetxe, zine ta hotelatan. Ezta hau inondik inora kanpora saltzen duten irudia, jende aberats (eta/edo) lapurran opor edo bizilekua baizik, urte guzin temperatura paregabe-kin. Aitortu barra do emiratik marketingen behintzat arrunt onak diala.

Ta ezta marketiñen bakarrik onak, gauza askotan munduko herrialdeik aurretunatakok dia. Covid19n kontrako txertaketan munduko biarrenak dia, 15 urte biño gehio damazkite “Cloud seeding” (laiño ereitea) teknikakin euria sortzen ta dela gutxi Martera alletu den lehen herrialde arabea, ta munduko 5.a, bihurtu dia. Kontraste ta kontraesanez betetako herrialdea da inondik inora re.

Uste dut Abu Dhabi ta Dubaiko hiri turismoa ya nahiko izauna dela denantzat, ordun Emirerritako beste leku batzuk nabarmenduko ttut, hemen dena ezpaita porlana, zeruñoko itxek ta kristalezko fatxadak.

Hatta: Dubaiko emirerrin Hego-Ekialden don herria, Omango mugatik hurbil. Ura oso preziatua da herrialde hontan, ta ezauna da bere urtegingatik. Harrizko mendiz inguratua do, ta bertako atrakzio nausia urtegin kayak praktikatzeta da. Abenturazko kirolak itteko aukera maten dun kanping bat e bado, mountain bike, tirolinak, ur txirristak... Ta baita aizkora jaurtike-ta re!

Jebel Jais: Emirerritako mendiik altuna (1900 metro inguru) herrialden Iparralden do, Ras Al Khaimah-ko emirerrin. Dena harkaitza da, ta bertako trailak “Starway to heaven” (zerurako eskailerak) izena ongi patua do, 6 km biño gutxion 1200 metro biño gehio io bar baitia! Goitik bistak ikusgarrik dia, ta euldi garbikin Iran ta dena kus litteke.

Moreeb Dune: arabek “moreeb” saten dute zeoze beldurgarria denen. Abu Dhabi hegoalden, Liwako oasin ondondun duna erraldoi bat da. 1600 metro-



Fossil Dunes.

ko luzera do, ta 50° aldapa. Urten behin lehiaketa bat itten dute kotxeekin aber zein gottio io (spoiler: gehinak motorra errekin attutzen dute). Halere urte guzin jendea kus litteke quad, todoterreno ta buggykin bueltaka.

Abu Dhabi Mangroves National Park: hirin bertan, etxeorraztatik metro gutxitara manglarran parke nazionala do. Bertan kayaken buelta bat man litteke, ta bertako hondartza tiki batzutan bañua hartu.

Deira auzoa: San litteke Dubaiko “alde zaharra” dela. Dena merkatu ttikiz betea, batez ere Asiatik karritako espeziek saltzen aitzen dia. Askotan duda sartzen da Dubain edo New Delhin zauden. Bertan aurkitzen da Golden Souk (urrezko azoka. Bai, “azoka” hitza arabierako “souq”-etik heldu da), non saltzen den guzia urrezkoa den. Bertatik pasatzen den kanaletik “abra” ugari pasatzen dia, pertsonak batetik bestera eramateko ibiltzen duten Emirerritako barku tipikoa.

Fossil Dunes: Abu Dhabitik 30 bat minututara aurkittu littezen duna berexi batzuk dia. Haizek forma mantako harrizko dunak, denboa pasa ahala formaz aldatzen dioztenak. Argazki ikusgarrik atere litteke, batez ere egunsenti ta illunabarren.


Ikusten zutenez, Abu Dhabi ta Dubain dena ez da lana, ta toki berri ta berexi asko bixitatzeko aukera euki dut. Espero dut zuentzat, irakurritz bidaiatzeko bada re, gustagarria izango dela. Laixter arte!




Moreeb dune.



Museum of the future, Dubai.



Dubai.




Sheikh Zayed Mezquita. Abu Dhabi.



Emirates National Auto Museum.



Hatta. Alaitz arrebarekin gabonak pasatzen.



Stairway to heaven.



Goizuetari buruzko zenbait jakingarri

Zein da Loitzate mendiaren al-
tuera? Zein izaten da Goizueta-
ko fiestetako egitaraua? Eta
zenbat biztanle ditu herriak? Zer da
hormaziria? Erantzunak datozen le-
rroetan aurkitu ditzakezu, irakurle,
Andres Nabarte Xalto ikastetxeko
ikasleek egin duten lanari esker.

XAPOko atal honetara lau lan
ekarri ditugu, Goizuetari buruzko
zenbait jakingarri bildu dituztenak.
Eskolako ikasleek egindakoak dira,
eta idatzi bakoitzaren bukaeran iku-
siko dituzu egileen izenak. Eskerrik
asko denei, noski, eta segi dezatela
herriari buruzko gauzak ikasten eta
erakusten.

Goizuetako fiestak

Xapo aldizkariko zati honetan Goizuetako fiestari buruz hitz egingo dugu, espezialki zer izaten den orduero.

- **Umen euna:** fiestak hasi baino lehenoko igandean izaten da. 8:00tatik 9:00 arte aurorak eoten dia. 9:00tatik 12:30k arte. Gero frontoiean partiduak egoten dira eta Irumaita txarangak 12:30k arte. Gero frontoiean partiduak egoten dira eta Irumaita txarangak partidu tarte batzutan jotzen do. 14:00tan umeak bazkaria eukitzen dute ikastolako tabernan; makarroiak tomatekin, xolomua patatakin ta postretako kalipo (betikoa...). 16:30tan xexenak ta po-

nik (umentzako), ondoren berendua. 18:30tan espuma festa ta euna diru-
kin bukatzeko 20:30tan BINGOA.

Badakizutenez fiestak, abuztuk 14 hasten dia. Hainbat ekintza eoten dia egunero.

- **Fiestatako lehenbiziko euna (14):** Euna enbidikin hasteko gaztek paella earra itten diute. 12:00tan fiestak hasteko txupinazoa, ondoren



erreportajea

erraldoiak eta buruhandiak. 14:30tan gazteak bazkaria eukitzen dute ikastolako tabernan, ondoren musika challenge izaten da. Behin tripa ongi beteta 18:00tan gazte desapiyua izaten da. 19:30tan txaranga eoten da dantza earki itteko. 20:00tan euneko txupinazoa gaztetxetik. 20:30tan bingoa. 23:00tan kontzertua izaten da gaztetxen. 23:00 baita re plazan kontzertua itten dute, ondoren Igande txaranga.

- **Fiestatako bigarren euna (15):** Euna ritmokin hasteko 7:30tan diana izaten da. 8:00tan zezenan entzierro ttiki bat izaten da MUUU. 10:30tan meza eta prozesioa izaten da. Ondoren 12:00tan erraldoiak eta buruhandiak berriz e lehenoko eunen bezala. Baita ere 12:00tan pilota partidak. 13:30tan txaranga (Igande txaranga). 18:30tan bertso saioa izaten da, ondoren, berriz ere txaranga (Igande txaranga). 20:30tan, egunero bezala, bingoa. 21:30tan dantzatu egiten dute herriko haurrak Mikeltxirekin.

21:45tan afaria izaten dute Umore Ona elkarteak. 00:30tan kalejira izaten da eta ondoren txaranga, berriz ere, (Igande txaranga).

- **Fiestatako hirugarren euna (16):** Haurrak eguna pozik pasatzeko 11:00tatik 14:00k arte puzgarritan ibiltzen dia. 11:30tan toka txapelketa izaten da helduentzat baita haurrentzat ere. 12:00tan sagardo probaketa izaten da. 13:00tan txaranga (Igande txaranga). 16:00tatik-18:00k arte puzgarriak izaten dira berriz. 18:30tan nola ez zezenak, ondoren txaranga (Igande txaranga) izaten da. 20:30, berriz ere, bingoa. 00:00tan rantxerak, "mexico en el corazón" dantzaldia, ondoren txaranga nola ez (Igande txaranga). 2:00tatik aurrera gau elektronikoa izaten da txoznan.
- **Fiestatako laugarren euna (17):** Euna hasteko 11:00tan erraldoiak eta buruhandiak. 12:00tan bakailo lehiaketa izaten da plazan. 13:00tan bakailo lehiaketaren irabazleak izenda-

tuko dia eta saria banatuko zaie. 13:30tan txaranga berriz ere (Igande txaranga). 17:00tan mus txapelketa (Iskibi kanpinean). 18:30tan plaza dantzak egoten dira, Umore Onako dantzariak hartzen dute parte, ondoren txaranga (Igande txaranga) izaten da. 20:30tan ohitura den bezala bingoa. 21:30tan disko festa ikastolako tabernan.

- **Fiestatako bosgarren eta azkeneko euna (18):** 12:30tan peñaren irteera, ikastolako tabernatikan irtezen dira. 12:30 peñaren irteerakin batera pilota partidak egoten dira, ondoren txaranga (Igande txaranga). 15:00tan bazkaria izaten dute Umore Ona peñak. 17:00tan kalejira edukitzen dute Umore Ona peñakoek, ondoren zezenak. 20:00tan berbena Gabezin taldearekin. 20:30tan bingoa. 00:00 fiestak bukatzeko ekitaldia izaten da, segidan kontzertua plazan eta ondoren DJ. Bull ikastolako tabernan.

Markel Salaberria eta Maria Aizkorbe


Goizuetako biztanleria

Goizueta biztanle gutxiko Nafarroako herri bat da, eta orain, Goizuetako biztanleriari buruz hitz egingo dugu. Bertan, urte batzuetan zehar igo edo behera egin duen azalduko dugu, eta baita zenbat emakume eta gizon zeuden.

Adibidez, 1986. urtean, guztira 1.093 biztanle zeuden. 500 emakume eta 593 gizon zeuden, beraz esan dezakegu gizon gehiago zeudela emakumeak baino, baina ez diferentzia askorekin.

1990. urtean, berriz, 1.055 biztanle zeuden, 574 gizon eta 481 emakumekin. Beraz ikusi dezakegu tarte horretan biztanleria jaitsi egin zela, bai gizonak bai emakumeak.

2000. urtean 903 biztanle zeuden guztira, 479 gizon eta 424 emakumekin, beraz, berritri ere jaisten joan



zen. Esan dezakegu, gizon gehiago jaisten joan zirela emakume baino, baina oraindik gizonak emakumeak baino gehiago zeuden.

2010. urtean biztanleria berriz gehiago jaitsi zen, bai emakumeak bai gizonak. 778 biztanle, 425 gizon eta 353 emakume zeuden.

2020. urtean 689 biztanle zeuden, 369 gizon eta 320 emakume zeuden.

Orain egin dugun ikerketan, ikusi dezakegun bezala, urtean zehar jaisten joan da.

Haizea Muñoz, Ringeru Salaberria eta Iraia Salaberria

Goizuetako mendiak

Artikulo honetan Goizuetako mendietaz hitz egingo dugu: Lehendabizi Goizuetako mendi batzuk aipatuko ditugu eta ondoren bost mendi garrantzitsuenen informazioa jarri

dugu. Hemen ikusiko duzue zenbat mendi ditugun, esaten dutenez Goizueta mendiekin beste herri handi batzuk baino handiagoa da, adibidez Donostia.

- Loitzate
- Mendibilla
- Etxolla
- Altzanburu
- Añone
- Errekalku
- Ozbero
- Irigorri
- Tartazuko harria
- Xoxolepoa
- Patolepoa
- Guriko harria
- Ur bereinkatuko ontzia
- Biosoroko
- Biosoroko harria
- Biosoroko iturria
- Biosoroko soroa
- Zalku
- Zalkuko bi harri
- Zalkuko korrala
- Mandoegi
- Ozbero
- Karaldi
- San Pedro
- Aniz
- Recaldo
- Larrea
- Idoi
- Mendaur
- Maingeneko iturria
- Urdiñola
- Aiarreko borda
- Etxollako bidexka
- Apezan gurutzea
- Hiru mugatako ataka
- Soro txiki
- Artikutza
- Ilarbita
- Erdiko lepoa
- Anizlarrea
- Berdabio
- Amonamotza
- Garintzin
- Zalku- 843 metro Alkasoaldean
- Domiñako soroa
- Beltzuntza
- Zalku-mendia
- Domiña borda
- Korroxko borda
- Maingeneko granja
- Elama
- Baratzain
- Korroxkan iturria
- Soiata
- Ibala
- Plantxoko
- Samarrene
- Santauzko borda
- Espide soroa
- Soro txikiko kruzea
- Bordatxoko borda
- Eskerniko aldapa
- Kantera
- Atxuta
- Depositua
- Berdabio
- Attonan gurutzea
- Larritza
- Juli iturria
- Alkasoko borda



ARTIKUTZA

Artikutza geografikoki Goizuetako udalerraren baitan dagoen barruti edo eskualdea da. Hala ere, Donostiako Udala 1919tik haren jabea da eta iristeko bidea aldiz Oiartzungo Altzibar eta Karrika auzoetatik abiatzen da. Esparru natural eder honek 3.700 hektarea inguru hartzen du, barruan 6 milioi zuhaitz inguru dituen baso zabala gorde duelarik. Artikutzan grabatu ziren ETB1 telebistaren Balbemendi tele-saileko hainbat kanpoaldeko eszena, baita ere "Itzalen basoa" izeneko pelikula grabatu zuten 2007ko otsailaren 14an. Euskal Herriko ingurunerik zaharrenetarikoa da. Urtean behin kanterako ataka irekitzen da, Artikutzako egunean, orduan autoan joan zinezke eta bertan hainbat eginkizun daude, beste egunetan nahi baduzu oinez joan daiteke baina urtean behin bakarra dago festa. Artikutzako festa Abuztuaren 28an egiten da urtero, nahi duena joaten da.



APEZAREN GURUTZEA

Izena: Apezaren Gurutzea

Kokapena: Goizueta

Altuera: 973 m

Esanahia: apez bat hil zuten leku honetan eta horregatik deitzen zaio Apezaren Gurutzea.

Thomas izeneko gizon bat Aranoko meztatik heldu zela leku honetan hil zuten labankada batzuekin 1779an.

MANDOEGI

Mandoegi Gipuzkoa eta Nafarroako herrialdeen artean dagoen mendia da. 1.046 m. Urumea ta Leitza-ran ibaiekin egiten du muga. Oso bista ederrak daude, horregatik, jende askok bertan kirola eta paseoak egiten ditu. Ehiza ere han egiten da eta ehizeko puesto ugari daude. Guretzako ohore bat da Goizuetan horrelako mendi zoragarri bat dugula esatea.



LOITZATE

Goizuetako mendirik altuenetarikoa da, 1048 metroekin. Loitzate mendia Mendaur mendilerroan dago kokatua. Ibilbideak egin daitezke, adibidez: Goizueta herrian hasiko da ibilbidea Loitzate mendira igotzeko asmoarekin. Loitzate mendira iritsi baino lehen Arrameletako kaskoa, Mendibilla, Amonamotzeko kaskoa eta Putzuetako gaina mendietatik igaroko gara. Bidean zehar monumento megalitiko ugari ikus ditzakegu.



ZALKU

Izena: Zalku mendia

Kokapena: Goizuetan edo Alkasoko auzon zehazki

Garaiera: 843 metro ditu

Zalkun zenbait toki badaude

bisitatzeko: Zalkuko harririk eta Zalkuko korralla.

ZALKUKO KORRALA

Garai batean harrizko korralla zegoen, orain marka batzuk bakarrik daude. Lehen ardiak jezteko, biltzeko eta animaliak harrapatzeko toki bezala ibiltzen zen.

Gure euskalkia

Euskara oso hizkuntza misteriozkoa, ederra eta aberatsa da. Nahiz eta ez den asko hitz egiten euskaldunok asko miresten dugu eta gure eguneroko bizitzan erabiltzen dugu. Goizuetan oso euskalki berezia daukagu, baina zer dira euskalkiak? Euskal Herrian zehar dauden azentu ezberdinak dira. Euskalki bakoitzak bere berezko ezaugarriak ditu.

Gure euskalkia paregabea da. Jendeak esaten duenez "txinoa" dirudi. Gainera, hitz egiterakoan abestu egiten dugula esaten digute. Goizuetarra gure herriaren xarma bat da. Hona hemen Goizuetako euskalkiaren hitz ohiko batzuk:

GOIZUETA	ESANAHIA
Maratila	Ateko heldulekua
Zimazua	Ile harrotuekin dagoena
Talamanteroa / Zepela	Tontoa
Zangulua	Zabua (kulunpioa)
Itxusi polita	Oso itxusia
Gotu	Gogoratu
Hormaziria	Estalaktita
Apaparrutxa	Zapaburua
Antxikabea	Axolagabea
Auntzo	Harago
Ziripurdia	Txiribuelta
Zatuka bat	Eskukada bat
Popotea	Bola
Nazkarria	Nazkagarria
Palakatu	Laztandu
Kanibita	Labana
Limeta	Botila
Zipatu	Ostropoz egin
Txirikorda	Trentza
Tototxa	Mototsa

Hitz hauen jatorria ikertzen aritu gara, baina, zoritxarrez ez dugu ezer aurkitu. Eta zuk, irakurlea, ba al dakizu hitz hauen jatorria?



Liburu berriak irakurtzeko gogoz?

“Liburuak kalera eramaten zaituzten ateak dira. Beraiekin ikasi, hezi, bidaiatu, amestu, irudikatu eta beste bizitza batzuk bizi ditzakezu, zure bizitza biderkatuz.”

Gehienok ezagutzen ditugu irakurtearen onurak, eta zuetako askok seguru liburuz hornitutako apalategi ederrak dituzuela etxean, asko irakurrita eta beste asko aukera berri baten esperoan. Zein gustagarria den liburu berri bat esku artean hartu eta mundu berri batean murgiltzeko momentua.

Liburuak opari gisa jaso daitezke, edo oparitu. Batzuk erosi egiten dituz-

te, baina bada askok oraindik deskubritu ez duten aukera bat ere: maileguan hartzea. Hartu, irakurri eta itzuli, ondoren beste batek irakurri dezan. Honetarako liburutegiek izugarrizko zerbitzua eman ohi dute, baina zoritxarrez Goizuetan ez dugu liburutegi publikorik izateko aukerarik. Dena den, herrian liburutegirik ezean, herri-erorri zaigu liburutegia bera. “Liburutegi ibiltaria” proiektuaren bidez, nobela, komiki nahiz aldizkariak gure etxeetaraino hurbildu zaizkigu.

Duela urtebete inguru pasatxo etorri zen lehenbiziko aldiz liburutegi

ibiltaria Goizuetara. Harkaitz Delgado, Leitzako liburutegian, aurrez herriarrek eskatutako liburuez gain, gomendioak eta nobedadeak ekartzen ditu, nahi duenak hartu ahal izateko. Denetarik topa daiteke liburutegian kaxetan; haurrentzat zein helduentzat zuzendutako liburuak dira, eta edonori literaturarekin gozatzeko aukera ematen diote. Doako zerbitzua da eta Nafarroako edozein liburutegitan dauden liburu, aldizkari nahiz dvd-ak eskatzeko aukera dago. Horretarako egin beharreko bakarra, Harkaitzi whatsapp edo email bidez mezua bi-



* Liburutegi ibiltaria

- Hilabeteko azken ostiralean etortzen da Goxalira, 14:30-15.30 bitartean.
- Irakurri nahi duzun liburua 617385882 zenbakira idatzi edo deituta eskatu dezakezu. Baita [biblilei@navarra.es](mailto:bibililei@navarra.es) helbidera idatzita ere.
- Eskatutazkoaz gain, gomendioak ere izaten dira eskuragai.

Irakurle taldea

- Urritik aurrera jarriko da martxan.
- Maiatzean zehar bilera bat deituko da informazio gehiago eman eta taldea sortzeko.
- Taldekideek erabakiko dute ze liburu mota irakurri nahi duten eta ze maiztasunarekin elkartuko diren irakurritako liburuari buruz hitz egiteko.

daltzea da*. Hortik aurrera, hilabeteko azken ostiralean 14:30-15:30 artean Goxalin hartu ahal izango du eskatutakoa.

Arrakastatsuak izaten ari dira liburutegi ibiltariaren bisitak, hileroko adin desberdinetako herritarrak hurbiltzen baitira liburu eske. Harkaitzek ere balorazio positiboa egiten du eta azpimarratu digu Goizuetan irakurle finak ditugula eta irakurzaletasuna bizirik dagoela.

Horri probetxua atara nahian, proiektu berriak martxan jartzeko aukera ikusi da, eta datorren ikasturtera begira irakurle taldea sortzea aurreikusi da. Baina, zer da irakurle talde bat?

Irakurle taldea, urritik aurrera martxan jartzeko asmotan

Irakurle taldea pertsona multzo bat da, liburu bera irakurri eta gero elkartzen dena horretaz mintzatzeko. Aldian behin elkartzen dira, egun eta ordu jakin batean beti. Bakoitzak bere etxean irakurtzen du liburua eta, gero, bileretan, testuaren aspektuei buruzko iritziak eman eta eztabaidatzen dira: pertsonaiak, esanahia, literatur moldeak...

Taldean parte hartzeko, ez duzu irakurle amorratua izan beharrik. Irakurtzeko eta parte hartzeko gogo

besterik ez da behar. Liburuak, gainera, liburutegiak jartzen ditu. Izan ere, Nafarroako Gobernuak 20 liburu osatutako loteak ditu, eta hauek eskatzeko aukera dago. Liburuak euskaraz nahiz gazteleraz izan daitezke, eta taldean bertan erabakiko da ze liburu irakurri nahi den. Horrez gain, idazleak gonbidatzeko aukera ere baloratu daiteke, beti ere, taldekideen nahiaren arabera.

Beraz, irakurtzeko eta irakurritakoa beste batzuekin partekatzeko gogoz bazaude, adi hurrengo deialdiei, bilera batean elkartu eta urritik aurrera martxan hasiko den irakurle taldeari forma ematen hasiko baikara.





Goizuetarrak lehian

Nafarroako I. Bertso Txapelketan

Diputazioak Nafarroako Bertso Txapelketaren aurreneko edizioa antolatu zuen 1960an. Horretarako bi kanporaketa jokatu ziren, Lekunberrin eta Iruritan. Finala Lesakan ospatu zen eta Andres Narbarte "Xaltok" irabazi zuen.

Hamar bertsolarik kantatu zuten Lekunberrin, Xalto eta Karretoko Batixta Perurena goizuetarrak eta Aranoko Pedro Narbarte horien artean. Finalerako txartela eskuratu zuten bi goizuetarrek, Txemenekoa aurrena eta Karretokoa bigarren sailkatu zirelako. Bien arteko bi saio argitaratuko ditugu aurtengo Xapon.



Karretoko Batixta.

Txemeneko Xalto.



Gaia:
Perurena,
ehiztaria.
Narbate,
arrantzan
errekak
erretzen
dabilena.

1. Perurena:

Jaian tabernan gustatzen zaio
arrantzan juaten da astetan;
beste ofiziorikan onek
etzun ikasi gaztetan.
Eite gogorrek baditu eiñak
Andresek nere ustetan;
gizajuak etzuen ikasi
erreka erretzen bestetan.

2. Nabarte:

Bautista gaizki mintzatu zaigu
ori beretzako kaltez;
Narbartek ere bere kontesta
emango du borondatez.
Eiztari ona dela uste du
esate bateko batez.
Onek zikirok ekartzen ditu
erbi ederrien partez.

3. Perurena:

Aizazu Andres gezurra esaten
neri ari zera erruz;
gero kopak e biar genduke
ori pensazazu buruz.
Erri aldera bajaturikan
arrantzan ibiltzen neguz;
tabernan bildutzen ditu onek
amaika amorri ta merluz.

4. Narbate:

Orain bertsoa bota biar diot
kopeta azala beztuta;
gure erritar laguntxo onek
bikaiña merezi du ta.
Mendira juanda utsik tortzen da
kartutxo danak ustuta;
nere amorraiak onek jaten ttu
berak deus iltzen ez du ta.

Lekunberriko
saioko
bigarren
fasean ere
elkarrekin
kantatzea
egokitu
zitzaien bi
goizuetarrei.
Gai librean
aritzeko
agindua jaso
zuten.

1. Perurena:

Aizazu Andres oraintxe dezu
aukera egiteko saioa.
Ogeitamabi urte ezkerro
izan badezu garaia.
Denak zuri begira daude
nai badezu artu galaia,
ontaz aurrera artuko izuten
mutil zarraren usaia.

2. Narbate:

Joan daneko bost minutu ontan
begira nago bateri,
izan ere nork ez kaso egin
orrek dun arpegiari?
Orixe baiño politagorik
ezta iñorre ageri,
geiñezkoena gustatzen zait
soiñ zuriakin den ori.

3. Perurena:

Nik esango izut andrearekin
nola bear duzun tratatu,
lanak agindutzen dizunian
aliek ondoen portatu,
errixtan asten baldin bazaizu
al dan guzia barkatu,
ta gero etxian dirurik beintzat
ez dedillela faltatu.

4. Narbate:

Leno gaistoak bota ditu ta
orain Narbartek ordeak
laister plaza ontan probatuko zu
onen abilitadeak.
Misera txarra etorri dala
onek diru gutxi gordeak,
gogo gutzia ein biar dula
aeistin esan dit andreak.


5. Perurena:

Arrazoi orrek bere moduan
bere kontesta badakar,
gizonari ala esanikan
etzaiola esan biar.
Andrea artu biar badezu
sayatzen al zera azkar
emendik ogei urtetara ere
Andres Narbate mutil zar.

6. Narbate:

Zerbait esaten aitu dut baiña
inporta gutxi ala ere,
Bautista bajutik itzeitea
egin biar dizut fabore.
Nik artutzeko neska guztiak
gaur Lekunberrin badaude
baña zu ainbat biziko naiz ni
mutil zar geldituta ere.

Arnasa gara – egunerokoan zer?



**AR
NA
SA
GARA**

Xaporen 19. zenbakian *Goizueta, euskararen arnagune* izeneko artikulua idatzi genuen. Goizueta euskararen arnagunea dela aldarrikatu genuen orduan, eta arnagune hitzak edo kontzeptuak zer esan nahi zuen azaltzen saiatu ginen. Honela laburtu genuen: “normalean euskararen ezagutza eta erabilera % 80 ingurukoa duten herriak sartzen dira multzo horretan. Ez da nahikoa herriar gehien-gehienek euskaraz jakitea, erabilerak ere oso altua izan behar du. Herriok eta herriotako bizi-lagunok “arnasa gara” euskararentzat, hemen gure hizkuntzak arnasa hartzen du, hemen gure hizkuntzari arnasa ematen diogu.”

Goizuetari definizio hori bete-betean egokitzen zaiola esan dezakegu, okertzeko beldur handirik gabe. Jakin badakigu hala dela, beraz, baina agian ez gara hain kontziente horrek daukan garrantziaz, eta agian ez dugu hainbesteko gogoeta egin eguneroko bizitzako zenbait egoeratan modu batean edo bestean jokatzek duen garrantziaz.

Horrekin guztiarekin lotuta, euskararentzat arnaguneak diren udalerrriak zein bertako herritarrak ahalduntzeko eta dagokien aitor-tza egiteko kanpaina bat abiatu zuten martxoan UEMak, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak, *Arnasa Gara – egunerokoan zer?* leloarekin.

Kanpainaren euskarri nagusia esketx batzuk dira, bideoan grabatuak. Zortzi esketx dira, eta kanpainan zehar sareratuz joan dira,

astean behin argitaratuta. Ikusgai daude, kanpainaren inguruko argibide guztiekin batera, www.arnasagara.eus webgunean. Horretaz beste deus esan baino lehen, webgunera joan eta bideoak ikustera animatu nahi zaituztegu. Bideoak ikusi, horren inguruko gogoeta egin, eta zure iritziak eta ideiak partekatu.

Esan bezala, zortzi esketx dira, arnaguneetan egunero eman litezkeen egoera zehatz batzuk oinarri hartuta: bisitariekin erabiltzen dugun hizkuntza; hitanoa; etorri berriak eta euskara; euskara edonora iristeko giltza izatea; gurasoen kezak...

Egoera horiek guztiak ez badira, ziur horietakoren bat bizitu izan dugula denok, edo gutxienez eza-guna egiten zaigula. Euskaraz bizi gara arnaguneetan, euskara osasuntsu dago gurean, baina eguneroko erabilera horretan ere izaten dira gorabeherak, baita arnaguneetan edo arnagunetan bizi gare-nok kanpora joaten garenean ere.

Garrantzitsua da euskararentzat, eta lagungarria euskaraz bizi nahi duenarentzat, egoera horiez jabetzea eta horien inguruko gogoeta egitea: horrelakorik gertatzen zaigun, nola jokatzeko dugun horrelakoetan, zergatik jokatzeko dugun modu batean edo bestean...

Tira, “Arnasa Gara” kanpaina horretaz guztiaz jabetzeko ekimen bat da eta, beraz, esketx horiek ikusi eta zure gogoeta propioa egitera animatu nahi zaitugu. Arinak dira, aisa ulertzeko modukoak, eta umorea ere badute tartean.

2001. urtea

Orain dela 20 urte Esteban Arozenak Ttipi-ttapan argitaratutako kronikei emanen diegu gainbegirada orri honetan. Ilbeltzean, Zaharren Egoitza eraikitzeko asmoa azaldu zuen Udalak. 65 urtetik goitiko 200 lagun zeuden orduan herrian; gainera, Burugorriko pistaren 2. fasea burutzea onartu zen 29 milioi pezetako aurrekontuarekin.

Otsailaren hasieran herria “hankaz goiti” zegoen Madalenatik Zibolarainoko zeharbidearen obrarekin. Inauterien ospakizuna zer edo zer baldintzatu zuen obra horrek baina ederrak izan ziren hala ere.

Martxoan Ttipi-ttapak eman zuen eskusibaz gero Euskal Herri osoan hainbesteko sona izanen zuen berria: Dionisio Txoperena publizitateko izar bihurtu zen Estatu Batuetan telefono mugikorren marka baten kanpainako protagonista bezala.

Apirilaren 6an Korrika igaro zen Goizuetatik, eta biharamonean Asier Olaizolak bikotekako txapelketan lortutako garaipena ospatu zen 350 lagun bildu zituen herri afari batekin. Apirilean baita ere, Naiara Arozenak Nafarroako Kantu Txapelketa irabazi zuen gaztetxoan mailan Mainer Ansaekin bikotea osatuz.

Maiatzaren 3an Pili Untxalo alkattea epaitu zuten “Espainiako Armadarekin” ez kolaboratzearen akusaziopean; ekainean, Zabala-Goikoe-txea enpresa hasi zen herriko saneamendu eta ur horniduren lanak burutzen (31 milioi pezeta), eta Kilikua taldeak irabazi zuen urteroko futbito txapelketa.

Uztailean 60 milioi pezetatan baloratutako bi oiha aprobetxamendu atera zituen Udalak enkantera; abuztuan, eta berriz ere arrakasta handiz, Amabirjinak ospatu ziren.



Iraillean Goiko Itturri inguruan Jokin Loiartek “agerrarazitako” 111 urteko labaderoaren berri eman zuen Ttipi-ttapak; urrian 182 milioi pezetako aurrekontua onartu zuen Udalak, eta gainera, 103 urte beteak zituen Idoietako aska konpondu zuten.

Azaroaren 24an, Gaztetxearen 10. urteurrena ospatu asmoz, ekitaldiz betetako asteburua antolatu zuten gazteek, Lau itzal, Asgarth eta Beta-garri taldeen kontzertua barne. Bukatzeko esan, Berri Txarrak taldearen kontzertua iragarria zegoela abenduaren 23rako, Gaztetxean noski.



ezetz asmatu

EZETZ ASMATU

Zuetako batzuek argazki hauetako protagonistak, baita argazki zaharrenetakoak ere, horrelaxe ezagutu zenituzten. Urteak pasata, erraz ezagutu al dituzue? Gazteago zaretenok, berriz, norbaiten antza ikusten diozuelako asmatuko duzue akaso. Tira, ariketa berdina da denontzat: ezagutzen al dituzue inauteri eta festa giroko argazki hauetan agertzen diren horiek guztiak? Begiak zorroztu, eta ea asmatzen duzuen!



ezetz asmatu





ZURE TXANDA

JOSUNE NARBARTE PANDEMIA



Wuhan esaten badizut, zer datorkizu burura?

Orain badakit Txinako herri bat dela baino oain arte aittu gabea! Lehen herria, perimetralki itxi zutena!

Pentsatuko al zenuen, mundu guztia hankaz gora patuko zuela?

Ez ta pentsatutare! Arrunt nahasi do, gure eguneroko bizia!

Zer bota duzu faltan itxialdian?

Elkarten hilabetero itten ginittun kuadrilako bazkari, gurason etxera joatera, mendi bueltak...

Itxialdian, zerbait ona aterara izango duzu, ezta? Zer?

Ikastaro bat egin dut on-line, asko irakurri dut eta ari-keta asko!

Noiz uste duzu etorriko direla, berriz ere gure palakuk... muxuk... besarkadak...

Denak inmunitatuta gaudenen baino iduitzen zit... hau luzerako jongo dela!

Momentuz, gau girorik gabe gaude, nola daramakizu?

Poteoa motz gelditzen da! Kar, kar... Dantzatzera botzen dut faltan!

Urte hontan hitz berri asko ikasi ditugu, esango didazu bakarren bat?

Covid, koronabirus, PCR, hidrogela, Astrazeneca eta abar luze bat... Uuff.

Gure herri ttikia, familia haundi bat bezala gara. Hori kontuan hartu al dute agintariek?

Ez. Jendez betetako hiri haundietako arau berdina patu ttuzte! Alde hortatik begiratuta herri ttiki haue-tan bizi kalitate askoz hobea dugu eta kontutan hartu beharrekoa dela uste dut.

Arauk betetzerakoan... helduak hain ongi ari al dira eta gazteak ez hain ongi?

Nik uste %100 betetzera momento guzitan oso zaila dela, nahiz eta saiatzan gan! Denak erdipurdi! Kar, kar baino gaztek errudun bakarrek, ez!

Zer uste duzu dugula Goizuetarrok, herrian hain "kasu" gutxi izateko?

Ez dikit, baino ikerketa bat egiteko modukoa da! Hemengo hezetasuna edo Goiko-itturriko ura edo kur-bak!...kar, kar, kar.

ROXAITO ETXEGIA PANDEMIA



Wuhan esaten badizut, zer datorkizu burura?

Covida sortu zen lekua, Goizuetatik oso urruti.

Pentsatuko al zenuen, mundu guztia hankaz gora patuko zuela?

Bai, ikusita beste herrialdeetan pasatzen ari zena, beldurra ematen zun!

Zer bota duzu faltan itxialdian?

Larunbatetan familiakin itten ginittun bazkari... nahiz eta nik prepatu behar izan... kar, kar, kar.

Itxialdian, zerbait ona aterara izango duzu, ezta? Zer?

Eguneroko nere lanetatik aparte, pelikulak ikusi ditut, telesailak eta letra zopa pila egin dut. Aspertzeko denbo gutxi izan dut!

Noiz uste duzu etorriko direla, berriz ere gure palakuk... muxuk... besarkadak...

Denak txertatuta gaudenen, iduitzen zit.

Momentuz, gau girorik gabe gaude, nola daramakizu?

Itxteen elegante! Itxe zalea naiz eta... kar, kar.

Urte honetan hitz berri asko ikasi ditugu, esango didazu bakarren bat?

Covid, antigenoak, aerosolak, PCR.

Gure herri ttikia, familia haundi bat bezala gara. Hori kontuan hartu al dute agintariek?

Nere ustez ez. Guk hurbilena Gipuzkoa izanik... baimenakin ibili behar, sendagile, dentistara joteko!

Arauk betetzerakoan... helduak hain ongi ari al dira eta gazteak ez hain ongi?

Denak gaizki! Gazteak bezain gaizki helduak!

Zer uste duzu dugula Goizuetarrok, herrian hain "kasu" gutxi izateko?

Ni bezala itxteen geldituta... kar, kar. Ez dakit, bai lanera bai ikastera jendea mugitu da eta hemen gehio ez izatera, horrek harritzen dit!